

Newsletter

Atal honetan, Euskadiko Turismo Behatokiaren newsletter-ak ikus ditzakegu, baita horiek guztiak biltzen dituen historikoa ere.

3. Buletina Urtarrila 2024

Euskadiko Behatoki Turistikoa **2023ko azaroko** Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du, eta **araututako ostatu turistikoaren guztizkoari buruzkoa**. Gainera, hilabete honetan euskal turismoaren **2022ko kontu sateliteare** datu batzuk ere sartu ditugu.

EUSKADIKO TURISMO SEKTOREAREN EKARPEN EKONOMIKOA. 2022 URTEA



- **Euskadiko turismo-jarduera BPGren % 5,5 izan zen**, 2021ean baino puntu eta erdi gehiago, eta COVID-19aren pandemiaren aurreko urteetako kopuruetara hurbiltzen ari da.
- Susperaldi ekonomiko honetan turismo **hartzailleak sortutako gastua** nabarmentzen da, 2021ekoaren aldean % 89 hazi baita.
- **Hiru lurraldeetan hazi da** jarduera turistikoak **BPGri** egiten dion **ekarpena. Bizkaia nabarmentzen da** Euskadi guztiko **gastu turistikoaren duen pisu handiagogatik, %43,7koa**.

2023KO AZAROA



2023ko azaroan **igoera garrantzitsuak** ikusten dira **sarreratan, + %5,3** (299.295) eta **gaualdietan, + %5,8** (604.246) baina **behera egiten du plazakako okupazio-mailak, % -4,1** (%27,03)



Hotelak dira turistaren kopuruan gora egiten duten bakarrak (+%7,3) eta **plazakako okupazio-mailan** (+%5,6). **Gau-kopuruan ere hotelek hazkundeak izan dituzte** (+%8,8), **kanpinekin** (+%2,8) eta **apartamentu turistikoekin** (+%4,9) batera.

Euskadiko hiri- eta barneko helmugek sarrera gehiago eta gaualdi gehiago jaso dituzte, eta **okupazio-mailan gora** egin dute. Aldiz, **Euskal Kostaldea** eta **Arabako Errioxak behera** egin dute turismo-eskariaren adierazle guztietan.

METATUA 2023KO URTARRILA-AZAROA



Balantze positiboa datu metatuetan 2023ko azarora arte, Euskadiko guztirako adierazleetan **igoera nabarmenekin: + %8,6 sarreretan, + %9,0 gaualdietan, eta + %1,6 plazakako okupazioan**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2023KO AZAROA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2023 vs 2022	GAUALDIAK 2023 vs 2022
Madril	%2,6 ↓	%2,0 ↑
Euskadi	%0,2 ↑	%0,4 ↓
Katalunia	%8,8 ↑	%8,1 ↑
Frantzia	%8,8 ↓	%8,6 ↓
Andaluzia	%3,9 ↑	%4,0 ↓
Gaztela-Leon	%4,2 ↓	%1,3 ↓
Valentziako Erk.	%17,1 ↑	%22,0 ↑
Galizia	%5,2 ↑	%7,7 ↓
Aragoi	%17 ↑	%13,9 ↑
Nafarroa	%8,3 ↑	%6,2 ↑

Merkatu nazionalaren pisu handiagoga, %53 nazioarteko merkatuaren %47aren aldean.

10 merkatu igorle nagusien artean, nazioarteko merkatu bakarra dago, Frantzia, laugarren postuan. Bisitari-kopuruan behera egin duten merkatu igorleak **Madril, Frantzia eta Gaztela eta Leon** dira. **Gau-kopuruan jaitsi direnak barneko merkatua (Euskadi), Frantzia, Andaluzia, Gaztela eta Leon, eta Galizia** dira.

Sailkapenaren liderrak, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa** (%14,1), **barneko merkatua (Euskadi)** (%13,3), **Katalunia** (%9,5), **Frantzia** (%8,0), eta **Andaluzia** (%4,0).

METATUA 2023KO URTARRILA-AZAROA MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2023 vs 2022	GAUALDIAK 2023 vs 2022
Madril	%1,3 ↓	%1,2 ↑
Euskadi	%1,5 ↑	%1,7 ↑
Frantzia	%10,1 ↑	%11,6 ↑
Katalunia	%3,9 ↑	%4,4 ↑
EEBB	%23,6 ↑	%22,6 ↑
Andaluzia	%11,5 ↑	%10,3 ↑
Alemania	%23,7 ↑	%25,5 ↑
Erresuma Batua	%18,0 ↑	%16,0 ↑
Gaztela eta Leon	%7,2 ↑	%8,2 ↑
Valentziako Erk.	%12,2 ↑	%13,2 ↑

Merkatu nazionalak %54ko pisua dauka, nazioarteko merkatuak gora nabarmen egin arren (+%16)

10 merkatu igorle nagusiek hazkunde metatuak izan dituzte bai sarreratan bai gaualdietan ere, **Madriletik etorritako kasuan** izan ezik, %1,3 behera egin baitute. **Hazkunde nabarmenak** izan dira **Amerika, Alemania, Ingalaterra eta Valentziako merkatuetan**.

Sailkapenaren liderrak, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa** (%12,2), **barneko merkatua (Euskadi)** (%10,4), **Frantzia** (%9,9), **Katalunia** (%7,9), eta **Estatu Batuak** (%4,1).